

# EUSKADI BASQUE COUNTRY



## KANPO HARREMANETARAKO PLANA JARDUEREN JARRAIPENA 2019 URTEA

*Uztailak 30, 2020*

## AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA</b> .....	<b>2</b>
<b>1 SARRERA</b> .....	<b>4</b>
<b>2 KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN 2019KO JARDUEREN JARRAIPENA</b> .....	<b>6</b>
2.1 1. Helburua: “Euskadiri eragile global baten lekua ematea” .....	6
2.1.1 1.1 ekintza ildoak: Euskadi Basque Country marka zabaltzea .....	6
2.1.2 1.2 ekintza ildoak: 2030 Agenda Euskadin aplikatzea .....	9
2.1.3 1.3 Ekintza ildoak: Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea ..	12
2.2 2. Helburua: “Euskadik Europan duen presentzia indartzea” .....	14
2.2.1 2.1 ekintza ildoak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren parte-hartzea bultzatzea	14
2.2.2 2.2 Ekintza ildoak: EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte hartzea bideratzea.....	18
2.3 3. Helburua: “Munduan euskal interesak sustatzea”.....	21
2.3.1 3.1 ekintza ildoak: Atzerriko euskal interes sektorialak bultzatzea .....	21
2.3.2 3.2 ekintza ildoak: Itun estrategikoak garatu eta finkatzea .....	25
2.3.3 3.3 ekintza ildoak: Euskal gizartea diasporizatzea eta atzerriko euskal komunitatea indartzea .....	28
<b>3 ONDORIOAK</b> .....	<b>32</b>

## TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: L.1.1 Euskadi Basque Country markazabaltzea ildiazen barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak .....	8
2. Taula: 2030 Agenda Euskadin aplikatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak .	11
3. Taula: L1.3 Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak .....	13
4. Taula: L2.1 EB-ren erabakitze prozesuetan Euskadieren parte hartzea bultzatzea ildoaren barruan 2018an eta 2019an burututako jarduerak .....	17
5. Taula: L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte hartzea bideratzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak .....	20
6. Taula: L3.1 Atzerriko euskal interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an osatutako jarduerak .....	24
7. Taula: L3.2 Itun estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak .....	27
8. Taula: L3.3 ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak. Euskal gizartea diasporizatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea.....	30

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1.Irudia L.1.1 Euskadi Basque Country markazabaltzea ildiazen barruan burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez.....	9
2.Irudia L1.2 2030 Agenda Euskadin aplikatzea ildoaren barruan burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez .....	12
3.Irudia L1.3 Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018-2019an burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez .....	14
4. irudia. L2.1 ildoaren barruan osatutako jarduerak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadieren parte hartzea bultzatzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez .....	18
5 irudia. L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte hartzea bideratzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez .....	20
6. Irudia. L3.1 Atzerrian Euskal interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez.....	24
7. irudia L3.2 Itun estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez .....	28
8.irudia. L3. 3 ildoaren barruan osatutako jarduerak: Euskal gizartea diasporizatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez .....	31
9.Irudia 2018 eta 2019an 100%, >66%, <66% eta 0% burututako jomugak, 2018-2020 hirurtekorako jomugen arabera .....	32
10 irudia. Helburu estrategikoen barnean %100%, >66%, <66% y 0% burututako jomugak .....	33

## 1 SARRERA

**2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia**, aurrerantzean EBC, 2014az gero eta 2018tik eguneratua, Euskadi nazioartekotzeko politika bere esparru tematiko guztietan gidatzen duen tresna da, eta bere helburua da «**Euskadi eragile global moduan kokatzea, Europaren proiektua eraikitzen espazio berekia duela, Herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere bakantasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta kanpoko euskal gizataldearekin estu konektatua**». Ikuspen hori nazioartekotze helburu estrategikoen multzo baten bidez gauzatzen da, eta helburu horiek, aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze jarduera ardatzen duten **bost bektore komunetan** jasota daude:

- V1. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea
- V2. Interes sektorialak suspertu eta bultzatzea
- V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzea
- V4. Europaren proiektuari laguntzea
- V5. Ezagutza atzitzea.

Maila operatiboan, EBCk, esparru dokumentua denez, **Nazioartekotzeko Plan Sektorialak** lantzea eta zehaztea aurreikusten du, bereziki protagonismo eta kanpo jarduera handiena duten eremuetan.

Ikuspegi horretatik, 2014an martxan jarri zen, EBCrekin batera, 2014-2017 aldirako **Kanpo Harremanetarako Plana** (aurrerantzean KHP), KHP 2014-2017, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren nazioarteko jarduera gidatzeko. **2014-2016 hirurtekoa**, KHPren jarduerak eta proposatutako jomugak betetzeari dagokionez, oso gogobetegarria izan zen, jarritako jomugak gainditu baitziren planteatutako jarduerarik gehien-gehienetan.

2017an, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzaren atzerri harremanen plangintza, laguntza eta koordinazio lanak egiten jarraitu zuen, baina barruko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa egiteko parte-hartze prozesu bat hasi zen, eta horren emaitza izan zen **2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Plan berria ezartzea**.

Plan berri honek, kontuan hartzen ditu XI. Legegintzaldirako (2016-2020) gobernu programa berria eta aurreko urteetan munduan gertatu ziren aldaketa geopolitiko eta ekonomiko

bortitzak, eta ezartzen dun Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren ekintza guztiek ondorengo misioari erantzun behar diotela:

***Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanak programatu, bultzatu eta koordinatzea, helburu izanik Euskadi eragile globala eta Europaren proiektuaren eraikuntzan leku propioa duena izatea eta munduan euskal interesak aldeztea. Horretarako, Euskadiren ordezkari instituzionala izango da eta nazioarteko eragileekin aliantza estrategiko egonkorrak ezarriko ditu, kanpoko euskal gizataldearekin harremanak estutuko ditu eta 2030 Agendarekin euskal gizarteak duen konpromisoa proiektatuko du.***

Misio hori aurrera eramateko, plana **hiru helburu estrategikotan** egituratzen da, 8 ekintza ildotan artikulatuta, eta berariazko 35 jardueratan konkretatuta, bakoitza bere jomugekin (44). KHPn zehaztutako helburu estrategikoak bat datoz EBCKo bektoreekin eta hauek dira:

- **1. helburu estrategikoa: Euskadiri eragile global baten lekua ematea**
- **2. helburu estrategikoa: Euskadik Europan duen presentzia indartzea**
- **3. helburu estrategikoa: Munduan euskal interesak sustatzea**

Planteatutako jardueren jarraipena ziurtatu eta optimizatzeko, Planak Monitorizazio, Jarraipen eta Ebaluazio Sistema bat ezartzen du, Planaren aurrerabidea sistematikoki neurtzeko, planteatutako helburuak lortzeko behar diren doikuntzak arian egite aldera.

Jarraipen Sistema hori kontuan hartuta, txosten honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2018an egin dituen lanak aztertzen dira, eta Planaren hiru helburu estrategikoetan ezarritako ekintza ildoen barruan jarduera bakoitzak eragin duen aurrerabidea zehazten da:

- **L1.1 Euskadi Basque Country marka zabaltzea**
- **L1.2 2030 Agenda Euskadin aplikaraztea**
- **L1.3 Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea**
- **L2.1 EB-ren erabakitze prozesuetan Euskadiren parte hartzea bultzatzea**
- **L2.2 EB-ren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte hartzea bideratzea**
- **L3.1 Atzerriko Euskal interes sektorialak bultzatzea**
- **L3.2 Itun estrategikoak garatu eta finkatzea**
- **L3.3 Euskal gizartearen diasporizatzea eta atzerriko euskal komunitatea indartzea**

Txostena egiteko 2019/12/31n [www.kanpoharreman.irekia.euskadi.eus](http://www.kanpoharreman.irekia.euskadi.eus) tresna informatikoan erregistratutako datuak hartu dira kontuan.

## 2 KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN 2019KO JARDUEREN JARRAIPENA

Atal honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planean planteatutako helburu estrategikoei buruz **garatutako jarduera nagusien analisia** aurkezten du.

Halaber, jarduera ildo bakoitzaren barruan **jarduera bakoitzaren betetze maila** aztertzen da 2018-2020 hirurtekorako ezarritako jomugen arabera.

### 2.1 1. Helburua: “Euskadiri eragile global baten lekua ematea”

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren lehen helburua **Euskadiren kanpo irudia Herrialde erakargarri eta lehiakor moduan proiektatzea da**, bere bakantasunagatik eta identitate propioagatik aitortua, eta erronka globalekin konpromiso handia duena. Horretarako, enfasi berezia jartzen da **Euskadi Basque Country marka finkatzen, Euskadin 2030 Agenda aplikatzea suspertzen eta nazioartekotze arloko ezagutza sustatzen**, honekin kontestu internazionallean posizionamendu eta pisua irabazten laguntzen dela ulertuz.

#### 2.1.1 1.1 ekintza ildoak: Euskadi Basque Country marka zabaltzea

2019an zehar, **Euskadi Basque Country markak** berriro ere rol protagonista bereganatu du atzerrian egindako jardueretan, bai Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak berak bere zuzendaritzen eta ordezkartzen bidez antolatutakoetan, bai Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak eta Euskadiko nazioartekotze ekosistemako eragileek antolatutakoetan. Izan ere, herrialde-marka indartsu bat izatea, balio berezi eta propio batzuetan oinarritua, kanpoan balio berezia ematen duen aktibo garrantzitsu bat da.

2018aren, **Euskadi Basque Country Egunaren** 0. edizioa edo abiarazte ospakizuna egin ondoren, 2019an, ekitaldiaren lehen edizio ofiziala ekainaren 19an ospatu zen Bilbon. "Abangoardia maite duen antzinako herria" izenburupean antolatutako ekitaldiak, Euskadi eta bere balioak munduan sustatzen dituzten mota guztietako eragileak biltzeko aukera aproposa eman zuen. *Euskadi Basque Country* markak eskaintzen dituen aukerak aztertu ziren, loturak gero eta trinkoagoak diren testuinguru batean, erronka berriak identifikatzeko eta horizonte berriak irudikatzeko.

Jardunaldiari Iñigo Urkullu Lehendakariak eman zion hasiera, eta hainbat pertsona ezagunek hartu parte zuten, nazioarteko proiektzioa duten euskal artistek eta herrialde markako nazioarteko adituek besteak beste. Oihartzun mediatiko handia izan zuen ekitaldi honek, nazioarteko euskal gizartearen ordezkariak zabala izan zuen.

Urtean zehar, nabarmentzekoak dira, halaber, **Euskadik atzerrian dituen ordezkariak EBC marka sustatzeko eginiko ahaleginak**, hala nola Txileko Viña del Mar-eko Euskal Zinema Zikloa, Mexiko Hiriko *Expochoess-eko Nazioarteko Xake Txapelketa* edo *New Yorkeko International Trade Award Breakfast-en* stand propioarekin parte hartzea bezalako jarduerak bermatuz. Gainera, euskal eragile desberdinei ohiko laguntza eskaini zitzaion, hala nola Basquetour-i, *Buenos Airesko Nazioarteko Turismo Ferialekuan*, edo Etxepare Institutuari hainbat ekitaldi antolatzen, esaterako euskal zinemaren zikloa New Yorken, edo Euskadiren parte hartzea *Bruselako Liburu eta Komikiaren Azokan*.

Bestalde, **Euskal Etxeak Herrialde markaren susperraldian funtsezko elementuak ere badirela agerian geratu da**. Besteak beste, Bahia Blancan (Argentina) euskarari buruzko erakusketa bat antolatuz, *"Dantza"* bezalako euskal filmak Latinoamerikako hainbat Euskal Etxetan proiektatuz. Era berean, *"Ikus-entzunezko katalogoa"* programaren bidez, euskal zinemaren zikloak antolatu ziren inguru australeko hainbat herrialdetan, Ordezkariak utzitako film eta dokumentalez hornituta. *"Buenos Aires Celebra País Vasco"* Jaialdian berriz ere stand batekin parte hartu zen, eta 25.000 parte-hartzaile baino gehiagorekin.

Bestalde, Argentina-Mercosurreko Ordezkariak, Juan de Garay Fundazioarekin batera, stand bat antolatu zuen *Buenos Airesko Liburu Azokan*, bertan Euskadi Basque Country markako hedapen-materialak hornitu zirelarik..

Herrialde marka **euskal expertisearen eta Euskadin garatutako jokaera onen zabalkundea egin den ekitaldietan** ere proiektatu da ekonomiaren, enpresaren, kulturaren eta gizartearen ekosistemako eragileen eskutik. Euskal *expertise* hedatzeko garatutako ekintzen artean, Basque Country markari lotutako balio positiboak proiektatzen lagundu duten bilera, ekitaldi eta plataformetan parte hartzea dira nabarmen. Honako hauek bereizten dira: Bruselako Ordezkariak Europako makro-erakundeetako buruzko adituen elkarrizketetan parte hartzea (adibidez, Interact Foroan), Emakunderen presentzia *Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordean*, Tknikak Europar Batzordeko Lanbide Heziketako zuzendari nagusiekin izandako bilerak, edo kultura eta sormen-industriak sustatzeko aholkularitza eta lankidetzak, Quebec-eko lan-misioaren esparruan.

Bestalde 2019an, **Euskadi Basque Country Laguna** aitorten instituzionala sortzeko lan egin zen, eta ekainaren 18ko 89/2019 Dekretuaren bidez argitaratu zen. Sari edo aitormen instituzional hau EBC marka atzerrian indartzen lagundu dutenei zuzenduko zaie, eta pertsona fisiko zein juridikoei eman ahal izango zaie, publiko zein pribatuei. Aintzatespen honen helburua, Euskadi kanpoan eta nazioartean gure balioak ezagutarazten egindako ekarpenagatik nabarmentzen diren pertsonen omentzea eta eskerrak ematea da.

**1. Taula: 1.1.1 Euskadi Basque Country markazabaltzea ildiazen barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak**


Jarduera	Adierazlea	2018an burutua	2019an burutua	2020rako jomuga
1.1.1 Antolatutako marka ekintzak	<i>Idazkaritzak antolatutako marka ekintza kopurua</i>	13	12	60
1.1.2 Eskual Etxeek bultzatutako marka ekintzak	<i>Bultzatutako marka ekintza kopurua</i>	27	27	250
1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna	<i>Euskadi Basque Country Egunaren ospakizun kopurua</i>	1	1	3
1.1.4 Euskadi Basque Country Laguna	<i>Euskadi Basque Country Laguna izendatu diren pertsona ospetsuen kopurua</i>	0	0	30
1.1.5 Marka sustatzeko Euskadi Basque Country funtsa	<i>Funtsa sortzea</i>	0	0	1
1.1.6 Euskal expertisea atzerrian proiektatzea	<i>Euskal partaidetzarekin exoertisea zabaltzen duten nazioarteko ekitaldi kopurua</i>	9	12	25

*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta*

2020. urteari begira, 2019. Urtearen amaieran **1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna eta 1.1.6 Euskal Expertisearen kanpo proiektzioa jarduerak** %66-a baino gehiago burutu dute (%66-a hirurtekoaren lehen bi ekitaldiei dagokien jardun proportzionala izango litzateke) eta beraz 2018-20 aldirako Kanpo Ekintzako Planak ezarritako jomugak betetzeko ondo bideratuta. Beste egoera batean daude **1.1.4 Euskadi Basque Country Laguna eta 1.1.5 Marka sustatzeko Euskadi Basque Country funtsa** jarduerak, oraindik ez baitituzte aurrerapenik nabaritu. Hala ere, esan beharra dago lehenengoaren kasuan, ekimena martxan jartzeko beharrezko urratsak eman direla. Gainerako jarduerak, maila desberdineko burutze mailak izan arren, %66ko betetze-mailaren azpitik daude.



**1. Irudia L.1.1 Euskadi Basque Country markazabaltzea ildia ren barruan burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



<66% burutua      66% - 80% burutua      > 80% burutua

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik abiatuta

**2.1.2 1.2 ekintza ildoak: 2030 Agenda Euskadin aplikatzea**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak **2030erako Garapen Iraunkorrerako Agendaren sentsibilizazioan, prestakuntzan eta zabalkundean** lagundu du Euskadin, kontuan hartuta Nazio Batuen Erakundean 2030 urterako ezarritako jomugen lurralde egokitzapenari eta ezarpenari ematen zaion garrantzi handia.

2018an, Eusko Jaurlaritzak modu aitzindariari 2030 Agenda euskal testuingurura egokitzearen ondoren, “Euskadi Basque Country 2030 Agenda” dokumentu estrategikoa kaleratuz, 2019. ekitaldian gobernuak hainbat jardura landu ditu dokumentu hau eta bere balioak Euskadin hedatu eta zabaltzeko. Besteak beste, honako **hitzaldi eta jardunaldi** hauetan parte hartu izana aipatu behar da: *Bilbao Youth Employment Forum 2019, Batera 2030 jardunaldia* irekitzea (2030 Agendaren Behatoki Feminista), “Goals Power Lab - Agenda 2030 eta GIHri buruzko jardunaldia gazteentzat” bezalako ekitaldiak antolatu izana UNICEFekin eta Gazteriaren Iberoamerikako Erakundearekin lankidetzan (OIJ), edo saio eta hitzaldi informatiboak egin izana, hala nola Eusko Jaurlaritzako goi karguentzat (Lehendakaria barne) eginiko saioa edota EUDEL-ekin lankidetzan 2030 Agendari buruz, 85 alkaterekin eginiko solasaldiak. Gainera Udalsarea, Garapenerako

Lankidetzaren Euskal Kontseilua edo Berritzeguneak bezalako organo eta elkarten batzorde teknikoetan parte hartzea bultzatu da.

2019an, **prestakuntzaren esparruan**, euskal gizartea osatzen duten eragileen artean Agenda 2030en ezagutza sustatzeko lan egin da. Horretarako, besteak beste, honako ekintza hauek bultzatu dira: UPV/EHUren "Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorreko Helburuak" udako ikastaroa antolatzea; Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak UNICEF Euskadik sustatutako *AliaODS Plataformako* kazetarietzako prestakuntza-saioari laguntza ematea; edota Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) 2030 Agendari buruz emandako "Nazio Batuen GIHak: politikak hobetzeko tresnak" prestakuntza-programaren hiru moduluak koordinatzea.

**Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzeari dagokionez**, nabarmentzekoa da Europan egindako hedapena; izan ere, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak eta Bruselako Ordezkaritzak GJHekin eta 2030 Agendarekin lotutako hainbat ekitaldi, hitzaldi eta argitalpenetan parte hartu baitdute. Ekintza horien artean aipagarriak dira *ESDN* (European Sustainable Development Network) sarearen Urteko Konferentzian parte hartzea, *European Week of Regions and Cities* ekitaldiaren barnean *Regions4SD* sareak antolatutako panel batean eginiko aurkezpena edo Europako Batzordeak antolatutako *European Policy* Forumean Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiaren parte hartzea. Ekitaldi horiek guztiek 2030 Agendarako euskal ekarpena, eta maila anitzeko gobernantzak, GJH-ak lortzeko duten garrantzia azaltzeko balio izan zuten.

Aldi berean 2019an, NBE edo ELGA bezalako nazioz gaindiko eta nazioarteko erakundeekin bilerak egiteko eta lankidetzan aritzeko aukera izan da. Aipamen berezia merezi du Iñigo Urkullu **Lehendakariak Nazio Batuen High Level Political Forum-aren barnean "Are we on track for mobilizing the trillions we need for the sdgs?" saioan parte hartu** izanak. Batik bat aipagarria da Nazio Batuen Foro Ofizial batera Lehendakari bat gonbidatzen duten lehen aldia delako. Euskadi 2030 Agenda eta GJH-ak ezartzeko aurrerapenak aurkezteko izan zen gonbidatua, baina bereziki, "Euskadiko Bonu Jasangarriak" jaulkitzeko izandako esperientzia ezagutarazteko; bono hauekin Eusko Jaurlaritzak 1.100 milioi euro eskuratu ditu gizarte eta ingurumen-inbertsioetara bideratzeko. 2030 Agendaren ezarpenean Euskadik izandako izaera aitzindariak, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako plataforma nagusia den foro horretan parte hartzea ahalbidetu du. Plataforma honek funtsezko eginkizuna du 2030 Agendaren eta Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) jarraipenean eta berrikuspenean, oro har.

Halaber, NBE-ri dagokionez, Estatu Batuetarako Euskadiko Ordezkaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda finantzazio ereduari buruzko aurkezpena ere aipatu beharra dago. ELGari dagokionez, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak ELGA-ko *Antolakuntza Idazkaritza Nagusiarekin* izandako topaketak eta "*Territorial Approach to SDG: a role for Cities and Regions*" mintegietan izandako inplikazioa azpimarratu behar dira.

GJHen arloan eragile eta sareekin aliantzen garapenean ere ahaleginak egin dira, hemen nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien, Eudelen eta hiru euskal hiriburuen artean 2018an martxan jarritako lankidetzaren proiektuaren barnean egindako lan saioak. Gainera Euskadi 2030 GUNEA Aliantza proiektua martxan jarri da, etorkizunean erakunde, eragile eta sareekin egingo den aliantzaren hasiera. Proiektu horrek hainbat arlotako 17 erakunde bildu ditu, 2030 Agendaren inplementazioaren bidez erakunde horiek, ingurunea eta euskal gizartea hobetzen eta mundu bidezkoago, solidarioago eta ingurumena errespetatzen duen baterantz trantsizioa bilatzen du.


**2. Taula: 2030 Agenda Euskadin aplikatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak**

Jarduera	Adierazlea	2018an burutua	2019an burutua	2020rako jomuga
1. 2. 1. Sentsibilizazioa, prestakuntza eta zabalkundea Euskadin	<i>Idazkaritza partaide den sentsibilizazio, prestakuntza eta zabalkunde ekintza kopurua</i>	13	26	20
1. 2. 2. Erakunde, eragile eta sareekiko itunak	<i>Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartzea</i>	1	0	1
	<i>2030erako Agendaren Itunkide kopurua</i>	0	17	50
1. 2. 3. Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzea	<i>Euskadi Basque Country 2030 Agenda zabalitzen den nazioarteko ekitaldi kopurua</i>	14	15	12

*Iturria: Guk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik*

Aktibitate bizi hori Aginte Taulan islatzen da. Horren arabera, **1. 2. 1. Sentsibilizazioa, prestakuntza eta zabalkundea Euskadin eta 1. 2. 3. Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzea** jardueren hirurteko osorako jomugak gainditu dira. Aitzitik, "2030erako Agendaren alde dauden Aliantzako kideen kopurua" adierazlea ez da helmugara iritsi, **1. 2. 2. Erakunde, eragile eta sareekiko itunak** jardueraren barnean, nahiz eta 2020ko lehen sei hilekorako aurreikusita dagoen Aliantza sortzeko, kideen atxikitze lanak jadanik hasiak diren.

**2.Irudia L1.2 2030 Agenda Euskadin aplikaraztea ildoaren barruan burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta.*

**2.1.3 1.3 Ekintza ildoak: Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezaqutza sustatzea**

**Euskal erakundeetan eta gizartean nazioarteko harremanei buruzko ezaqutza bultzatzeko**, gai horretan espezializatutako iritzi-foroekin eta *Think Tanks*-ekin harremanak sustatu dira, horrela Jaques Delors Institutuarekin (Notre Europe izenez ere ezaquna), edo Mexikoko *CONAGO* (Gobernadoreen Konferentzia Nazionala) edo *COMEXI* (Nazioarteko Gaietarako Mexikoko Kontseilua) foroekin harremanak eraiki dira. Beste ekintza mota batzuk ere sustatu dira, hala nola Kanpo Harremanetarako espezializazio bekak esleitzea.

Horren osagarri, **euskal kanpo harremanen sozializazioa bultzatu** da hainbat ekintza ezberdinekin, esterako euskal unibertsitateetan hitzaldiak eta ikastaroak ematen, Deustuko Unibertsitateko zenbait masterretan edo UPV-EHUko BEINT beken heziketa esparruan, edota unibertsitateko doktorego-tesiak egiteko datuak eta dokumentazioa erraztuz. Azkenik, gobernuko sailburuek eta goi-kargudunek, nazioartean eta batez ere Europako erakundeen aurrean eginiko ekintzak, komunikabideetan transmititzeko eta islatzeko ahaleginak ere azpimarratu beharrekoak dira.


**3. Taula: L1.3 Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak**

Jarduera	Adierazlea	2018an burutua	2019an burutua	2020rako jomuga
1. 3. 1. Pertsonal teknikoaren nazioarteko mugikortasun programa	<i>Progama sortzea</i>	0	0	1
1. 3. 2. <i>Think tanks</i> eta nazioarteko harremanetan espezializatutako eztabaidaguneekiko harremanak	<i>Ekinbide bateratuen kopurua</i>	1	3	8
1. 3. 3. Nazioarteko harremanen arloko ezagutza sarea	<i>Sarea sortzeko esplorazio azterlana</i>	0	0	1
1. 3. 4. Kanpo harremanetarako bekak	<i>Esleitutako beka kopurua</i>	12	5	36
1. 3. 5. Euskal kanpo harremanen gizartaraztea	<i>Kanpo harremanak euskal gizarteari komunikatzeko jarduera kopurua</i>	4	10	15

Fuente: Elaboración propia a partir de datos recabados por la Secretaría General de Acción Exterior

2020rako ezarritako helburuak ikusita, bete den jarduera bakarra **1.3.5 Euskal kanpo harremanen gizartaraztea** izan da, hirurtekoaren xedeak osatzetik gertu. Hala ere, **1.3.4 Kanpo Harremanetarako bekak** eta **1. 3. 2. Think Tanks eta Nazioarteko harremanetan espezializatutako eztabaidaguneekiko harremanetako** jarduerak, nahiz eta% 50 inguruko jarduna izan, ez dute lortu lehen bi ekitaldi horietarako ezarritako %66ra iristea. **1.3.1. Pertsonal teknikoaren nazioarteko mugikortasun programa** sortzeko konpromisoari dagokionez, eginkizun horren ardura duten erakundeekin hainbat bilera egin diren arren, oraindik ez da lortu ekimen hori formalki aurkeztea. Azkenik, ez da jarduerarik erregistratu **1.3.3 Nazioarteko harremanen arloko ezagutza sarea** jardueraren barnean.

**3.Irudia L1.3 Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea ildoaren barruan 2018-2019an burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik abiatuta

**2.2 2. Helburua: “Euskadik European duen presentzia indartzea”**

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren bigarren helburuak **euskal kanpo harremanen lehentasunezko esparrutzat Europa** hartzen du. Euskadi European erakuntzaren partaide eta erantzulekide izatea nahi da, EBren erabakitze prozesuetan parte hartuz eta euskal eragileak erkidegoko proiektu eta ekinbideetan inplikaturaz Euskadiren presentzia eta eragiteko ahalmena instituzional zuzena ikuspegi multisektorialetik eta modu publiko-pribatuan hedatzen.

2.2.1 2.1 ekintza ildoak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren parte-hartzea bultzatzea

2019an zehar, Euskadik European gero eta protagonismo handiagoa izan dezan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak **Euskadiren ahotsa Europako erakundeetan bultzatzeko** lan ugari egin du. Hala, Eusko Jaurlaritza eskumen legegileak dituzten Europako eskualde talde informal baten buru da, European Batasunean maila anitzeko gobernantzari eta Europako

integrazio-prozesuan legegintza-eskumenak dituzten eskualdeen rolari buruz eztabaidatzeko, iragarritako Europaren etorkizunari buruzko Konferentziaren esparruan.

Era berean nabarmentzekoa da EBko Kontseiluetan eginiko lana, bereziki ECOFIN Kontseiluko, enpresen, zuzeneko eta zeharkako fiskalitate lantaldeetan esku hartzearen bidez. Era berean, azpimarratu behar da Eusko Jaurlaritzak Europako Batzordeko zenbait komitetan parte hartu izana, estatuko autonomia-erkidego guztien ordezkari bezala.

Azkenik, Euskadik Europako erakundeetan duen parte-hartzea sendotzeari dagokionez, Eskualdeetako Lantaldean egindako lana nabarmendu behar da, batzorde horretako osoko bilkuretan Eusko Jaurlaritzak hainbat zuzenketa aurkeztu ditu bere interesen alde, landutako irizpen-proiektuak bozkatu ditu eta migrazioaren eta garapenerako lankidetzaren arloan jardunbide egokiak aurkeztu ditu.

Bestalde, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik Eusko Jaurlaritzako sailei laguntza eskaini zaie Europako Batzordeko Zuzendaritza Nagusi desberdinekin mantendutako bileretan, hala nola Garraioetako Sailburuordeak DG MOVE zuzendariarekin izandako bileran. Azpimarratzekoak dira Eusko Jaurlaritzako zenbait goi-kargudunek, bai kontsulta-prozesuetan zein Europako politikak diseinatzeko gaitutako adituen foroetan egindako esku-hartzeak. Ildo horretan, Goi Mailako Hezkuntzako sailburuordeak *University-Business Forum-ean* Euskal Unibertsitate-Enpresa Estrategia aurkeztea, Lanbide Heziketako sailburuordeak 2. *Europako Hezkuntzaren Goi Bileran* egindako esku-hartzea eta Azpiegituren Zuzendariak *Korridore Atlantikoaren Europako Foroan* izandako parte-hartzeak nabarmenduko ditugu.

Aldi berean, Batzordeak eskatuta, Eusko Jaurlaritza eta EARLALL sarea, espezializazioaren eta ikaskuntzaren arloko lantalde batean parte hartzera gonbidatuak izan dira. Gaur egun, sare horretako presidentzia dauka Euskadik.

Halaber, Euskadiren rola eta posizioa bultzatu da **Europako lobby politiko-instituzionalaren** bidez, datozen urteetan Europar Batasunaren bilakaera markatuko duten erronkei begira. Hemen, Eusko Jaurlaritza bereziki aktiboa izan da energia ozeanikoen arloan Makro eskualde Atlantiko baten gobernantza ereduari eta hau sortzearen balio erantsiari buruzko txosten bat argitaratuz. Txosten horren emaitzak lehen aldiz *Sare Transnazional Atlantikoko* lantaldean aurkeztu ziren Rennesen (Frantzia), eta, egiaztatu ondoren, Estatu Kide atlantikoetako Ordezkaritza Iraunkorren eta Enbaxaden aurrean azaldu zen (Irlanda, Frantzia, Erresuma Batua, Portugal), bai eta Europako Batzordean ere. Lan horren ondorioz, abenduan, Atlantikoko Makro

eskualde bat sortzeko *Task Force*-bat (lantaldea) sortu zen Oporton ospatutako *Sare Transnazional Atlantikoaren Batzar Nagusian*.

Beste alde batetik, Euskadik Europaren etorkizunari buruz duen ikuspegia zabaldu eta partekatu du, *Europako Lurralde Lankidetzaren etorkizunari buruzko Manifestua* (Component 5) edo *NPB-  
ren* (Nekazaritza Politika Bateratua) *Plan Estrategikoei buruzko Manifestua* bezalako **txostenak argitaratuz eta sinatuz**. Dokumentu horiek Europako hainbat erakundetan aurkeztu ziren. Gainera 2030 Euskadi Basque Country Agenda, Eskualdeetako Lantaldean Europako 2030erako Agendaren proposamenari buruz egindako kontsulta publikoan aurkeztea azpimarratzen da.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak aliantzak egituratu eta ehundu ditu ulermen-memorandum desberdinen errubrikaren bidez, hala nola *Shift2Rail Lankidetzaren Publiko Pribatuarekin* sinatutakoa, edota Europako Batzordearen ekitaldietan, Euskadiko Baso Bio-ekonomiaren Ibilbide Orria (EUBioScene2019) edo Euskal Unibertsitatearen Estrategia (University-Business Forum) bezalako proiektuen aurkezpenarekin.

2019an Brexit-aren Jarraipen Batzordeak, 2017an eratu zenetik garatutako jarduerari jarraipena emateko lan egin da. Osaera publiko-pribatua duen komisio honek kideen arteko informazio trukatzeko du helburu egoeraren diagnostiko egokia egin ahal izateko eta negoziazio-aldiari eta ondorengo agertokiari aurre egiteko estrategia bat zehazteko. 2019an egindako hiru bileretan, Batzordeak brexitarren prozesuaren ondorio instituzional, ekonomiko eta sozialak baloratzeko lan egin du, eta parte hartu duten eragileek garatutako kontingentzia-neurriak bateratu ditu, Erresuma Batua EB-tik ateratzeak izan ditzakeen eragin negatiboak minimizatzen.

Era berean, bereiztekoak dira Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak herritarrak gai honen inguruan sentsibilizatzeko eta informatzeko egindako ekintza desberdinak. Testuinguru horretan, udako ikastaro bat antolatu zen irailaren 12an eta 13an Donostian, "Brexit-ak integrazio-prozesu politikoan eta ekonomian dituen ondorioak" izenburupean. Arlo pribatu eta publikoko adituak izan ziren, baita think tank desberdinetako adituak ere, eztabaida eta hausnarketa interesgarriak sortuz.

Horrez gain, KHIN-ren webgunearen bidez, unean-unean prozesu horren garapenaren berri eman da, bai eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek horren inguruan egindako jardueren berri ere.

Azkenik, eta Europako gaiei dagokienez Estatuarekiko solaskidetzari dagokienez, aipagarria da aktiboki parte hartu dela Alde biko batzordearen (CARUE) bileretan. Inguruabarrek baldintzatuta, eta 2019a Erresuma Batua EBtik kentzeko prozedurari dagokionez urte bereziki



gorabeheratsua izan dela kontuan hartuta, bilera gehienak gai horren jarraipenean zentratu dira. Hauetan Eusko Jaurlaritzak aktiboki parte hartu du, Brexit-ak Euskadin aurrez ikusi zitezkeen ondorioei eta horiek arintzeko egindako jarduerari buruzko informazioa emanez.

Europar Batasuneko erabaki prozesuetan Euskadiren parte hartzea sustatzeko garatutako jarduera positiboki islatzen da hurrengo taulan. 2019an, **2.1.1 Euskadiren interesak bultzatzeko EBren organo eta erakundeetan parte hartzea, eta 2. 1. 2. Euskadiri EBren etorkizunean lekua aurkitzea** jardueretan hirurteko adierazle guztiak bete dira; **2. 1. 3. Euskadik Brexitaren aurrean dituen interesak** jarduera oso gertu dago 2020an burutu ahal izateko, eta azkenik **2. 1. 4. Europako Gaiei buruz Estatuarekiko harremanak** jarduera da betetze mailatik urrunen dagoena, gainerako jarduerarekin alderatuta behera egin baitu.


**4. Taula: L2.1 EB-ren erabakitze prozesuetan Euskadieren parte hartzea bultzatzea ildoaren barruan 2018an eta 2019an burututako jarduerak**

Jaduerak	Adierazlea	2018an osatua	2019an osatua	2020rako jomuga
2. 1. 1. Euskadiren interesak bultzatzeko EBren organo eta erakundeetan parte hartzea	<i>Koordinatutako EB Kontseilu kop. eta parte hartu den lantalde teknikoaren kop.</i>	24	16	31
2. 1. 2. Euskadiri EBren etorkizunean lekua aurkitzea	<i>EBren etorkizunari buruzko euskal ikuspena lantzea</i>	1	0	1
	<i>EBren etorkizunari buruzko euskal ikuspena sustatzen den jarduera kopurua</i>	5	6	9
2. 1. 3. Euskadik Brexitaren aurrean dituen interesak	<i>Brexitaren Jarraipen Batzordearen bilera kopurua eta horri buruz eztabaidaguneetan emandako hitzaldi kopurua</i>	4	6	12
2. 1. 4. Europako gaiei buruz Estatuarekiko harremanak	<i>Alde Biko Batzordearen bilera kop. eta Europar Batasunarekin zerikusia duten gaietarako K konferentziaren bilera kop.</i>	6	2	13

*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik habiatuta*

2019. urtearen amaieran, 2.1.4 jarduera da soilik xedearen % 66aren azpitik dagoen bakarra.

**4. irudia. L2.1 ildoaren barruan osatutako jarduerak: EBren erabakitze prozesuetan Euskadiren parte hartzea bultzatzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik habituta

**2.2.2 2.2 Ekintza ildoak: EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte hartzea bideratzea**

2019an zehar, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, **Euskadik Europa eraikitzeke eginiko esfortzuak eta haiek Euskadin daukaten eraginari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziario jarduerak ugari bultzatu ditu.**

Ildo honetatik, Europako balioak zabaltzeko asmoa duten ekitaldiak antolatu eta babestu dira, hala nola Europako Egunaren ospaketa Deustuko Unibertsitatean, "Europako Parlamenturako hauteskundeak 2019" jardunaldia EHU, edo Euskadiko komunikabide nagusietako arduradunak, *Europako Parlamentuko Komunikazio Zuzendari Nagusiarekin*, eta *Europako Batzordeko Komunikazio Korporatiboko Zuzendariarekin* biltzeko antolatutako bilera.

Gainera, bereziki garrantzitsua da **EIESen (Europako Informazioaren Euskal Sarea) webgunean** eta Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren atarrietan hainbat arlotako programa, ekimen eta politikei buruzko txostenak argitaratzea. Europako politika sektorialeiei eta EBko familia- eta etxe-enpleguari, ikus-entzunezkoen sektorearen finantzaketari, hiri-trantsizioari, ekonomia zirkularrari eta abarri buruzko gaie buruzko txosten ugari argitaratu dira. Aipatzekoak

dira Zergak aldizkarirako egindako fiskalitatearen arloko Europako negoziazioen bilakaerari buruzko artikulua. Era berean, Europako Gaietarako Zuzendaritzak, Europar Batasuneko Argitalpen Zerbitzuak argitaratutako gidak lehen aldiz euskaratu ditu; gida hauek herritarren eta Euskadiko eragile sozioekonomikoen interes orokorreko gaiei buruzkoak omen dira. Horretarako, EBko Argitalpen Zerbitzuaren aurrean argitaratzeko baimenak izapidetzeaz, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren webgunean euskaratutako informazio-liburuxkak zabaltzeaz eta EIESeko kideei banatzeaz arduratu da: Foru Aldundiak, Euskadiko Udalen Elkarte (Eudel), Euskal Merkataritza Ganberak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Europar Batasunaren mendeko Europe Direct zentroak. Jarduera horien helburua da herritarrei eta euskal eragile sozioekonomikoei laguntzea, kanpoan aukerak indartzeko ezagutza berriak lor ditzaten.

Bestetik, **aholkularitza pertsonalizatua eta Europako proiektuen eta ekimenen jarraipen aktiboa egin da**, euskal eragileen parte-hartzea bultzatzeko eta laguntzeko. Horrela, lan ildo honen barnean honako hauek nabarmendu litezke: *European Network of Rural Development* sareko bioekonomia lan-bileretan parte hartzea; Eusko Jaurlaritzak eta euskal unibertsitateek *Europako Berrikuntza Agentziarekin, Regional Innovation Scoreboard-en* (eskualde baten jarduera berritzailearen adierazle ofiziala) inguruan mantendutako lan-saioak; *CRPM* sareko klima, garraioa, etab. foroetan parte hartzea; edota *RICC* eta *EUNIC* sareen barnean garatutako kultura eta sormen lankidetzak proiektuak. Euskalfondoa-rekin eta Garapenerako Lankidetzaren arloko tokiko eta eskualdeko agintarien Europako sarearekin (PLATFORMA) elkartuta, konferentzia europar bat antolatu zen hiriek eta udalerriek erronka globalei erantzuteko duten eginkizunari buruz.

Azpimarratzekoak dira, halaber, *Vanguard Initiative* edo *ERRIN* bezalako sareen lantalde eta organoetan izandako partaidetza, edo Europako Batzordeko hainbat zuzendaritza nagusirekin izandako lan-saioak, hala nola DG Connect-ekin *Digital Innovation Hubs*-en eta etorkizuneko Digital Europe programa berriaren inguruan, DG Regio-rekin eskualdearteko berrikuntza inbertsioei buruzkoa edo DG Klima-rekin KLIMA 2050 estrategia aurkezteko aukera eman zuena. Ekintza-ildo honetan, industrian energia-eraginkortasuneko proiektuak finantzatzeko aukerekin lotutako ekitaldietan parte hartu da (set Plana).

Bestalde, aholkularitza eman da euskal kultura- eta sormen-sektorerako Europako finantzaketa- aukerei buruz. Era berean, **Eskualdeen eta Hirien Europako Astea**n euskal eragile instituzional eta sozioekonomikoei parte hartzeko egindako lana azpimarratu behar da.


**5. Taula: L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte hartzea bideratzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak**

Jarduera	Adierazlea	2018an burutua	2019an burutua	2020rako jomuga
2. 2. 1. Europaren eraikuntzari eta Euskadin duen eraginari buruzko ekintzak	<i>Europaren eraikuntzaz antolatutako ekitaldi kopurua</i>	18	22	9
	<i>EBren programei, ekinbide eta politikei buruzko txosten kopurua</i>	38	30	50
2. 2. 2. Eragileek Europako proiektu eta ekimenetan parte hartzeari laguntzea	<i>Europaren esparruan lagundutako proiektu eta ekimen kopurua</i>	69	117	150

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik habiatuta

2018-2020 hirurtekorako planteatutako helburuak kontuan izanik, 2.2. ekintza ildoko jarduera guztiak, **2. 2. 1. Europaren eraikuntzari eta Euskadin duen eraginari buruzko ekintzak eta 2. 2. 2.2.2 Eragileek Europako proiektu eta ekimenetan parte hartzeari laguntzea** jardueren adierazle guztiak bete dira 2019. bigarren urte honen amaierarako, denboraldirako ezarritako helburuen 100% guztiz burutuz.

**5 irudia. L2.2 EBren proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen parte hartzea bideratzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik habiatuta

### 2.3 3. Helburua: “Munduan euskal interesak sustatzea”

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Planaren hirugarren helburua **nazioarteko harremanen egitura sendo, egonkor eta iraunkor bat garatu eta mantentzea** da, euskal gizartearen atzerriko interesak babesteko, bereziki aliantza estrategikoak garatu eta finkatuz, kanpoko euskal gizataldearen ezagutza eta konexioa indartuz.

#### 2.3.1 3.1 ekintza ildoak: Atzerriko euskal interes sektorialak bultzatzea

Euskadiren kanpoko harreman instituzional berriak nabarmen bultzatu dira **Urkullu Lehendakariak atzerriko lehentasunezko herrialde eta eskualdetara egindako bidai ofizialei esker**. Lotura instituzional berriak sortzeko eta euskal errealitatea ezagutarazteko xedearekin, hainbat entzunaldi eta bilera egin dira nazioarteko pertsonaia entzutetsuekin. Adibidez New Yorkera Lehendakariak eginiko bidai ofizialaren bitartean, Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoan parte hartzeko helburuarekin “Major Groups”-ak errepresentatuz, Maria Fernanda Espinosa *Nazio Batuen Batzar Nagusiko Presidentearekin* eta Miguel Ángel Moratinos *Zibilizazioen Aliantzarako Goi Ordezkariekin* biltzeko aukera izan zuen. Bidai horretan ere, Phil Thompson New Yorkeko alkateordearekin ere bildu zen. Mantendutako hitzaldian euskal kooperatiba-ereduaren gaia jorratzeaz gain esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko hastea adostu zuten.

Bestalde, Lehendakaria, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiarekin eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako Idazkari Nagusiarekin batera, Vatikanora joan zen errefuxiatuak Europara hartzeari buruzko *Share Proposamena* aurkeztera. Aurretik, Francisco Aita Santua buru zuen Auzitegi Publikoan izan ziren, San Pedro plazan, eta Pietro Parolin kardinala den Estatuko idazkariarekin biltzeko aukera izan zuten Jauregi Apostolikoan. Bisita horrek agerian utzi zuen Vatikanokoak bat egiten zuela Eusko Jaurlaritzaren proposamenarekin.

René Cassin Baionako legelariari, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren egile ordeari, Bakearen Nobel Saria eman ziotenaren 50. urteurrena zela eta, Lehendakaria Estrasburgora joan zen, eta bilera bat izan zuen Guido Raimondi Giza Eskubideen Europako Auzitegiko presidentiarekin eta Christos Giakoumopoulos Europako Kontseiluko Giza Eskubideen

zuzendari nagusiarekin. Era berean, Jean Paul Costa Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuko (Rene Cassin Fundazioa) presidenteak ere harrera egin zion. Lehendakariak Euskadik mugaz haraindiko anaitasunarekin duen konpromisoa, euskal gizarteak Cassinen humanismoarekin duen lotura eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin duen baldintzarik gabeko atxikimendua erakutsi ondoren, Gernikako arbolaren kimu bat landatu zen Fundazioaren lorategietan.

Urteko beste ekitaldi garrantzitsu bezala azpimarra daiteke Lehendakariak, Europako Eskualdeen Lantaldeak Bukaresten antolatutako *Hiri eta Eskualdeen 8. Goi-bilera Europarrear* izandako partaidetza. Goi-bilera horretan Europako eskualdeetako buruzagi nagusiek Kontseiluko eta Europar Batzordeko kideek parte hartu zuten.

Paraleloan, **erakunde desberdinetako ordezkari garrantzitsuek Euskadi bisitatu** eta Lehendakariarekin bilerak mantendu zituzten, besteak beste, Fukushimako, Masao Uchibori, eta Mieko, Eikei Suzuki, Japoniar prefekturako Gobernatzailerak, Txinako Jiagnsu eskualdeko Guo Yuanqiang Gobernadore jauna, Korsikako Kontseilu Exekutiboko Presidentea, Gilles Simeoni jauna edo Kolonbiako Presidente ohia izan zen Ernesto Samper jauna. Era berean beste Australia, Alemania, Brasil, Frantzia, Erresuma Batua, Lituania, Panama eta Portugalgo enbaxadoreekin bilerak ospatu dira, besteak beste.

Aipamen berezia merezi dute ere Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak antolatutako bilerek, aipatzekoak *SEGIB* (Iberoamerikako Idazkaritza Nagusia) erakundeko Idazkari Nagusiaren bisita edo Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoko Gutxiengoaren Errelatorearekin mantendutako lan-topaketa.

**Europar esparruan**, Lehendakariak Laguntza Humanitarioko eta Krisiaren Kudeaketako Europako Komisarioari egin zion harrera Euskadin, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren laguntzarekin munduko krisi humanistoi nagusien buruz eta gauekiko Euskadik duen ikuspuntuaren inguruan solastu zuten.

Bere aldetik, Europar Batasunerako Euskadik duen Ordezkaritzak **Europako erakundeetara Eusko Jaurlaritzaren eta beste euskal agenteen bisitak** babestu eta antolatu ditu. Huen artean aipatu beharrekoa da Hezkuntzako Sailburuak Bruselara egin zituen bi bisitak, lehena, Europako Batzordearen aurrean Euskal Unibertsitate-Enplegu Estrategia aurkezteko, eta bigarrena Europako Batzordeak Hezkuntzaren Europako Bigarren Goi Bileran Europako Monitorea aurkezteko ekitaldian parte hartzeko. Era berean, adibide batzuk aipatzearen, Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuordeak, Berrikuntzako sailburuordeak edo Basque Trade and

Investment erakundeko zuzendari nagusiei ere lagundu zaie Europako Batzordeko eta Europako beste erakunde eta sare batzuetako ordezkariekin izan dituzte bileretan.

Bruselan izandako topaketen esparruan, Gizarte Gaietako sailburuordek eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiak Europako eskualdetako gobernuen eta erakunde desberdinen aurrean egindako SHARE ekimenaren aurkezpenak nabarmenduko ditugu.

Egindako agenden artean, azpimarratzekoa da Lanbide Heziketako Sailburuordeak Europako Batzordea bisitatu ondoren, Europako Batzordeko Enplegu, Espezializazio eta Gizarteratze Zuzendariak Lanbide Heziketako euskal sistema ezagutzeko Euskadira eginiko bisita. Halaber, aipatzekoak dira Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak eta Europako Gaietarako zuzendariak Eskoziara eta Galesera egindako bisitak, eskualde horiekiko gobernuekin harreman instituzionaletan aurrera egiteko.

2019an, garrantzi handikoak dira nazioarteko hainbat adituk Euskadiko errealitatea hobeto ezagutu dezaten egindako bi **Learning Tour**-ak, gure interes sektorialak sendotu eta jardunbide egokiak zabaltzeko asmoz. Bereiztekoak dira: Quebeceko enpresa-munduko, teknologia berrikuntzako, gastronomiako eta komunikabideetako, 6 pertsona ordezkaritza bati egindako harrera; eta Europako gizarte eta hezkuntza esparruko adituen harrera. Flandriatik, Galesetik, Bavariatik eta Nordic Council-etik etorritako adituek osatutako bigarren ordezkaritza horrek, Euskadiko erakunde eta organismo garrantzitsuenak bisitatu zituen 5 egunez.

**Diplomazia publikoko** ekintzei dagokienez, kultura-arloan egindako jarduerak nabarmendu dira aurten ere, batez ere Cultural Diplomacy Platform eta EUNIC erakundeekin batera egindako lanak. Euskadi kultura-diplomaziarekin eta eragileen nazioartekotzearekin lotutako narratiba europarrean kokatzeko balio izan zuen.

Jarduera ildo honekin erlazionatuta, euskal eragileak aitzindari diren eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bultzatzen dituen **kanpoko nazioartekotze proiektuetarako laguntza** ere badago. Arlo honetan aipagarriak izan ziren kultura arloan egindako lanak (Fair Saturday ekimena Latinoamerikan ezartzeko laguntza), Deustuko Unibertsitatearekin batera Emakume Teknologoari *Ada Byron* saria sustatzea, Gipuzkoako Ganberak Montevideora egindako merkataritza-misioari emandako laguntza, edo lan-bilera bat antolatzea Cambridge Innovation Center-en (CIC) Bostonen ezarritako euskal enpresekin.


**6. Taula: L3.1 Atzerriko euskal interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an osatutako jarduerak**

Jarduera	Adierazlea	2018an burutua	2019an burutua	2020rako jomuga
3. 1. 1. Euskadi barruko eta kanpoko erakunde harremanak	<i>Idazkaritzak edo bere lankidetzaz antolatutako atzerriko bidaia instituzionalen kopurua</i>	41	38	55
3. 1. 2. Nazioarteko liderrekiko harremanak	<i>Antolatutako Learning Tour kopurua</i>	1	2	5
3. 1. 3. Ordezkaritza diplomatikoekiko harremanak	<i>Lehendakariak ordezkariatza diplomatikoekin egindako topaketa kopurua</i>	16	24	50
	<i>Gorputz diplomatikoaren ordezkariekin antolatutako gosari, topaketa eta langune kopurua</i>	13	41	30
3. 1. 4. Diplomazia publikoko ekintzak	<i>Atzerrian egindako diplomazia publikoko ekintza kopurua</i>	2	5	18
3. 1. 5. Atzerrian nazioartekotzeko proiektuei laguntzea	<i>Lagundutako nazioartekotze proiektu kopurua</i>	7	9	60

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik abiatuta

Ildo horren barruan planteatutako jarduketan kasuan, lehenak, 2020rako finkatutako helburua gainditzen du; zehazki, **3.1.1 Euskadi barruko eta kanpoko erakunde harremanak jarduerak**, (% 100). **3.1.3 Ordezkaritza diplomatikoekiko harremanak** jardueren barnean lehen adierazleak %80 eta bigarrenak 100% batekin betetzen dituzte ezarritako jomugak. **3.1.2. Nazioarteko liderrekiko harremanak** jarduera bilakaera zuzena izan du 2019rako helburuak beteta. Bestalde, **3.1.4. Diplomazia publikoko ekintzak eta 3.1.5. Kanpoan nazioartekotzeko proiektuak babestea** jarduerak ez dituzte 2019 urtearen amaierarako legokieken helmugak bete.

**6. Irudia. L3.1 Atzerrian Euskal interes sektorialak bultzatzea ildoaren barruan burututako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta



### 2.3.2 3.2 ekintza ildoak: Itun estrategikoak garatu eta finkatzea

Ildo honetan sartzan da nazioarteko erakundeekiko, lehentasunezko herrialde eta eskualdeekiko eta nazioarteko sareekiko harremanak garatzera eta finkatzera, bai eta Euskadik nazioarteko erabakigune desberdinetan duen eragina finkatu eta handitze aldera eta euskal interesak sustatze aldera bideratutako jarduera.

2019an, **Europako Kontseiluaren** 70. urteurrena ospatzeko, "Giza Eskubideak eta Demokrazia" jardunaldia antolatu zen Donostiako Kursaallean. Lehendakariak itxi zuen ekitaldi horrek, Europako Kontseiluko idazkari Nagusiaren, Gabriella Battani-Dragoni anderearen, bai eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiko ordezkari desberdinen parte hartzea izan zuen. Publikoari irekitako saioak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Jurisprudenziari, demokrazia eta lurralde kohesioari, Europako Tokiko Autonomia Gutuna bezalako gaiei buruz eztabaidatzeko aukera eman zuten.

**2020rako Euskadi Basque Country Estrategian lehentasuna eman zitzaizen herrialdeekiko harremanei** dagokienez, 3.1 ekintza arloan jasotako Urkullu Lehendakariaren eta sailburuen bidaia ofizialetan eta harreretan ezarritako maila goreneko harremanez gain, 2019an nabarmentzekoak dira Euskadiren eta Fukushimaren arteko lankidetzaren memorandumaren sinadura, bai eta Jiangsurekin sinatutako lankidetzaren memoranduma berri izana. Europa mailan, azpimarratzekoak dira, Galesekin batera, 2018an sinatutako MoU-a burutzeko Ekintza Planaren garapena; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, Cardiffen Nazioarteko Harremanak eta Galesko Hizkuntzaren Lehen Ministroarekin, bai eta Lehen Ministroaren Kabineteko goi-kargudunekin izandako topaketak; edo Kultur sailak, kultura-industrien arloan, bai eta Ingurumen Sailak, klima-aldaketak kostaldean dituen ondorioen esparruan Flandriara egindako lan-misioak. Azkenik, Amerikako kontinentean nabarmentzekoa da Txileko<sup>1</sup> Etxebizitza eta Hirigintza Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren arteko elkar ulertzeko memoranduma, babes ofizialeko etxebizitzetan eta hiriguneen berronertzean oinarritzen dena, Txileko Etxebizitza Ministroak eta Ingurumen, Lurralde plangintza eta etxebizitzako sailburuak sinatua.

**Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa Euroeskualdearen esparruan** bai Batzarrak bai Batzorde Betearazleak Euroeskualdearen funtzionamendurako beharrezkoak diren urteko bilerak egin dituzte. Nabarmentzekoa da Euroeskualdeak gero eta presentzia handiagoa duela Europako

<sup>1</sup> 2019ko amaieran Txilen izandako protesta sozialek, "Txileko eztanda Soziala" ere deituak, Andeetako herrialdean ekintza ugari gauzatzea eragotzi zuten.

proiektuetan, bereziki Interreg V-A programaren esparruan (POCTEFA 2014-2020). Gainera, 2019an, mugaz gaindiko proiektuetarako laguntzen deialdien esparruan, 1,2 milioi euroko proiektuak onartu ziren. Horietatik, 800.00 euro bi laguntza deialditara bideratu ziren (2018an baino 100.000 gehiago), 450.00 euro kultura, ondare, hezkuntza, kirol eta eleaniztasun proiektuetarako eta 350.000 euro ekonomia, ikerketa eta berrikuntza arloetarako. Bestalde, lankidetzaren estrategikoko proiektuek 400.000 euroko zuzkidura izan zuten, eta horiekin finantzatzeko dira zenbait arlo ekonomikotan mugaz gaindiko aliantzak. Gainera, aurten, organo nagusiak berriro dira (Batzar Nagusia eta Batzorde Exekutiboa), Nafarroako Gobernu berriaren ordezkariak integratzeko, AECTko zuzendari berri bat kontratatzeko eta euroeskualdearen webgune berria aurkezteko.

Esparru horretan, 2019ko maiatzean, Europako Gaietarako zuzendariak espezializazio adimenduneko estrategiei buruzko ekitaldi batean parte hartu zuen, Faron (Portugal), Europako Batzordearen *Joint Research Center-ek* antolatuta. Ekitaldi horretan, Euskadiko RIS3ren ikuspegia eta Akitania eta Nafarroarekin mugaz gaindiko lankidetzaren duen proiektzioa azaldu zituen.

**Ipar Euskal Herriko Mankomunitatearekin** harremanak izan ondoren, 2019an Lehendakariak eta Mankomunitateko Presidenteak **lankidetzaren instituzionalerako Memorandum** bat sinatu zuten, euskara, migrazio, garraio eta lurralde politika arloetan arreta berezia jarriz eta euskara, kultura, turismoa eta nekazaritza bezalako lankidetzaren lanetan.

Mugakide diren eskualde hauei dagokienez ere, aipatu behar da Pirinioetako Lan Elkartearen (CTP) Osoko Bilkuretan eta bertako Batzorde Betearazlean ere parte hartu zela, bai eta ARFE-ko Batzar Nagusian ere (Europako Mugako Eskualdeen Elkarte).

Bestalde, **Euskadik interes estrategikoa dituen sareetan parte-hartzeari** dagokionez, nabarmentzekoa da ORU-FOGAR (Eskualde Batuen Erakundea) sareko gobernantza-organismoetan eta ekitaldietan parte hartzea. Espezializazio adimenduneko Europako plataformei dagokienez, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzaren eta euskal klusterren ordezkariak itsas energien, agro-food-en eta manufaktura aurreratuaren arloetan izandako partaidetza aktiboa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren parte-hartzearen esparruan, *Interreg Europe* Europako lurralde-lankidetzako proiektuetan, hala nola *CREADIS 3* eta *S34GROWTH* proiektuetan, azterketa-bisitak eta proiektu-bilerak egin dira.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak Vanguard Initiative sarearen batzar politikoa parte hartu du, eta Eusko Jaurlaritzaren jarrera aurkeztu du Europako erakundeen aurrean, egitura-funtsen sinergiekin eta industria-berrikuntzako programekin lotutako gaietan.

Era berean, nabarmentzekoa da Europako esparruaren barruko sare eta alde anitzetako ekimenetan garatutako jarduerak, hala nola EARLALL (European Association of Regional and Local Authorities for Lifelong Learning), RICC (Regional Initiative for Culture and Creativity), EUNIC (European Union National Institutes for Culture), Vanguard Initiative, European Initiative, europar politikiten eragiteko eta euskadiren iritzia plazaratzeko.

Aipatzekoa da, halaber, 2019an *Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziaren* (CRPM) Batzar Nagusiren ospaketan Palermon, Sizilian (Italia) eta Arku Atlantikoko Batzordean. Batzorde hau CRPM-ren sei batzorde geografikoetako bat omen da, eta honen Batzar Nagusian Eusko Jaurlaritza parte hartu zuen Oporton (Portugal).

Ekintza ildo honen barruan programatutako jardueren betetze mailari dagokionez, horietako batzuek erraz gainditu dituzte 2019rako ezarritako jomugak, hauek dira **3.2.1 Nazioarteko antolakundeekiko** jarduerak, **3.2.3 Kide Estrategikoen Sarearekiko harremanak** jarduerak, **3.2.4 Mugaz gairik elkarlana eta lurralde elkarlana jarduerak eta**, zati batean, **3.2.5 Nazioarteko Sareetan presentzia izatea** jarduerak (bakarrik sareen gobernantza organoetako partaidetzari lotutakoan).


7. Taula: L3.2 Itun estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak

Jarduera	Adirazlea	2018an osatua	2019an osatua	2020rako jomuga
3. 2. 1. Nazioarteko erakundeekiko lankidetzak	<i>Nazioarteko antolakundeekiko ekinbide bateratuen kop.</i>	9	8	12
3. 2. 2. Lehenetsuneko herrialdeekiko harremanak	<i>Lehenetsun herrialdeetako gobernu edo erakundeekiko ekinbide bateratuen kopurua</i>	5	7	25
3. 2. 3. Kide Estrategikoen Sarearekiko harremanak	<i>Kide Estrategikoen Sarearen barruko ekinbide bateratuen kopurua</i>	10	13	20
3. 2. 4. Mugaz gairik elkarlana eta lurralde elkarlana	<i>Elkarrekin hasitako mugaz gairik eta eskualde arteko ekinbide eta proiektu kopurua</i>	21	23	15
3. 2. 5. Nazioarteko sareetako presentzia	<i>Identifikatutako sare sektorial berrien kop.</i>	0	2	5
	<i>Sareen gobernantza organoetako partaidetza kopurua</i>	11	16	25
3. 2. 6. Sorospen tekniko proiektuen laguntza ildoak	<i>Lagundutako proiektu kopurua</i>	0	2	6

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

**3.2.2. Lehenasunezko herrialdeekiko harremanak, 3.2.5 Nazioarteko sareetako presentzia eta 3.2.6 Sorospen teknikoko proiektuen laguntza ildoak jarduerari** dagokienez, ez dira gainditzen ekitaldi honetan bete beharrekoak.

**7. irudia L3.2 Itun estrategikoak garatu eta finkatzea ildoaren barruan osatutako jarduerak, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta*

**2.3.3 3.3 ekintza ildoak: Euskal qizartea diasporizatzea eta atzerriko euskal komunitatea indartzea**

2019. urtean zehar **Euskal Etxeen erroldan Argentinako beste etxe bi gehitu dira**, orain guztira 195 direlarik. Euskal Etxeen sarearen eta haren jardueraren finkapenak jardueraren oinarrietako bat izaten jarraitu du, **euskal etxeentzako diru-laguntzen ildoak** bezalako ekimenak

berrargitaratuz. Izan ere, 2019an zehar, 10 herrialdetako 70 zentrok jaso zituzten laguntzak, Euskal Etxeetan 700 jarduera inguru babestu zirela kalkulatzen da<sup>2</sup>.

Aipagarria da, halaber, **Euskal Etxeak webgunea** eguneratu izana, erabiltzailearentzat erakargarriagoa eta dinamikoagoa bihurtuz. 2019an 121 herrialdetan 34.000 erabiltzaile baino gehiagoren kontsultak erregistratu ditu. Gainera, eta aurreko ekitaldietan egin izan den bezala, Euskal Etxeei laguntza eman zaie haien jardunetarako eta euskal kultura suspertzeko ekintzak sustatzeko.

2019ko ekitaldi nagusien artean, Ispasterren ospaturiko **II. Euskal diasporaren eguna** gailentzen da, paraleloki beste 100 ekitaldiz babestua, euskal presentzia zuten 17 atzerriko herrialdetan; bestetik *Saregintzan* lelopean Bilbon urriaren 2tik 4ra egin zen **Kanpoko Euskal Gizataldeen Munduko Biltzarren VII. Edizioa** ere nabarmentzen da. Lau urteko topaketa hau Urkullu Lehendakariak inauguratu eta itxi zuen. Bertan izan ziren Euskadiko erakundeetako ordezkari nagusiak, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea eta mundu guztitik etorritako 19 herrialdetako euskal etxeen ordezkariak.

Munduko Biltzarrean, ekitaldi instituzional bat egin zen Eusko Legebiltzarrean, 8/1994 Legea indarrean egon zela 25 urte bete direla ospatzeko. Legearen helburua diasporaren erlazioentzako politika integral bat planteatzea zen, eta horrekin hainbat programa eta ekintza garatu dira, haren beharrei eta errealitatei erantzuteko.

Euskadin zein kanpoan **Euskal diaspora sustatzeko eta horren errealitatez jabetzeko** ekintza gisa, ENARA inkesta egitea nabarmendu behar da. Honetan 3.000 pertsonak baino gehiagok erantzun zuten, eta migrazio-fluxuen aniztasuna eta protagonisten kezka agerian jartzeko balio izan du.

Aldi berean, **euskal komunitate globalaren eraikuntzan** aurrera egiten jarraitzeko, Gaztemundu programaren edizio berri bat egin zen. Honi esker, munduak zabalduetako Euskal Etxeetako 18 eta 35 urte bitarteko 15 gazte Euskadin izan ziren irailaren 23tik urriaren 6ra, Euskal Etxeen eta kultur erakundeen kudeaketari buruzko prestakuntza jasoz. Programa honen helburua gazte hauek gure herrialdearen benetako irudi eguneratu bat ikusi eta euren jatorrizko lekuetan transmititzea da.

Gainera, **atzerriko euskal komunitatearentzako arretak** funtsezko zeregina izaten jarraitu zuen, **bai muturreko beharrei eta premia larriko egoerei erantzuteko** euskal etxeei eman beharreko

<sup>2</sup> 2019ko ekitaldirako emandako diru-laguntzak justifikatzeko epea 2020ko ekainaren 30ean amaituko da; beraz, oraindik ez dago 2019ko ekitaldian Euskal Etxeetan lagundutako ekimenen benetako kopururik.

prestazio ekonomikoen deialdiaren bidez – 108 familia-eskaera baino gehiago artatu ziren (7 herrialdeetako 17 euskal etxe) –, bai itzulera-kasuei emandako arretaren bidez (39 kasu artatu ziren).

2019an zehar Euskadiko Artxibo Historikoaren barruan **Euskal Diasporaren Artxiboa** jarri da martxan, Euskal Etxeen, komunitateen, erakundeen eta kanpoko euskal familien jarduera zabalduta eta memoria gordetzeko. 3.356 sarrera katalogatu dira, eta 184 funts sortu, dokumentuak, ikus-entzunezko materiala, objektuak, argitalpenak eta abar erabiliz, euskal gizartearen, kanpoko euskal komunitatea osatzen duten pertsonen, ikertzaileen, eta gaien interesa duten pertsonen eskura errealitate hori ezagutzeko baliabide berri bat jarri.

Ekintza-ildo honekin lotutako adierazleak betetzeari dagokienez, **3. 3. 2. XXI. mendeko euskal komunitatea, 3. 3. 3. Euskadin diasporari buruzko ezaupidetza sustatzea eta 3. 3. 4. Atzerriko komunitatearentzako arreta** jardueretan 2019rako planteatu ziren helburuak bete dira

**8. Taula: L3.3 ildoaren barruan 2018 eta 2019an burututako jarduerak. Euskal gizartea diasporizatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea**

Jarduera	Adierazlea	2018an burutua	2019an burutua	2020rako jomuga
3. 3. 1. Euskal Etxeen sarea finkatzea	<i>Diru-laguntza bidez langundutako Euskal Etxeen jarduera kopurua</i>	408	700	2000
	<i>Egoitza elektronikoaren bidez izapidetutako espediente kopurua.<sup>3</sup></i>	0	0	600
3. 3. 2. XXI. mendeko euskal komunitatea	<i>Gaztemundu programan parte hartzen dutenen kopurua</i>	15	15	45
	<i>Basque Global Network sarea erabiltzaileen dutenen kopurua</i>	2192	-	2000
3. 3. 3. Euskadin diasporari buruzko ezaupidea sustatzea	<i>Ikerketa eta zabalkunde ekinbideen kopurua</i>	4	7	10
	<i>Euskal Diasporaren Eguna ezartzea</i>	1	-	1
3. 3. 4. Atzerriko euskal komunitatearentzako arreta	<i>Muturreko beharrea izanik laguntza jaso duten familia unitateen kopurua</i>	109	108	300
	<i>Artatu diren itzulera kasuen kop.</i>	14	39	60


*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta*

Ildo honetan eta 2020 urterako ezarritako jomugak kontuan hartuta, **3.3.1 Euskal Etxeen sarea finkatzea** jardueran, bere bi adierazleak, bigarren ekitaldirako planifikatutako aurrerabideari dagokion %66aren azpitik dauden bakarrak dira. Hala ere, helburua lortzea ez dago Kanpo

<sup>3</sup> Euskal Etxeak eta bere erabiltzaileak atxikitu ahal izateko plataforma elektronikoa sortze prozesuan dago. Ekintza honek denbora eskatzen du, Euskal diasporaren nazioarteko errealitate zabal batean erakunde publikoek herritarrekin duten harremanari buruzko herrialde desberdinetako Sektore Publikoko Legeak ebaluatu behar baitira.

Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren jardunaren mende, plataforma martxan jartzearen menpe baizik.

**8.irudia. L3. 3 ildoaren barruan osatutako jarduerak: Euskal gizartea diasporizatzea eta kanpoko euskal gizataldea indartzea, 2020 urterako ezarritako jomugei dagokienez**



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta


### 3 ONDORIOAK

2018a, Euskadi Basque Country 2018-2020 Nazioarteko Esparru Estrategia eguneratuaren eta 2018-2020 aldirako Kanpo Ekintzako Planaren abiapuntua izan ondoren, 2019a, bai Estrategia eta bai plana bermatu eta finkatzeko urtea izan da, aurreko ekitaldian hartutako bidea jarraituz eta orain arte burutu gabeko ekintza berriei hasiera emanez.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzak Nazioartekotzeko Esparru Estrategiaren ezarpena koordinatzen jarraitu du, aldi berean, bere Ekintza Planean planteatutako hiru helburuak betetzea ahalbidetu duten jarduerak garatu dituelarik.

Indarrean dagoen Kanpo Harremanetarako Planak biltzen dituen hiru ekitaldietako bigarren honen amaieran, eta txosten honen emaitzak ikusita, oro har, ezarritako helburuak betetzen ari direla baieztatu daiteke. Horrela, bi lehenengo urteetan, 2020-rako proposatutako **44 kontrol-adierazleetatik 18 erabat osatu dira (% 41), hau da, hauetan 2018-2020 hirurtekoari dagozkien xedeak erabat lortu edo gainditu dira.** Beste 7-tan berriz dagozkien jomugan % 66a bete da (hau da 2018-2019-rako planteatutako helburuak lortzearen parekoa); 44tik 14-tan (%32) ez da planifikatutakoa guztiz bete; eta guztietatik 5etan (11%) ez da jarduerarik erregistratu. **Guztira, egin beharreko jardueren % 57k bete dituzte beren helburuak 2019aren amaieran.**

*9.Irudia 2018 eta 2019an 100%, >66%, <66% eta 0% burututako jomugak, 2018-2020 hirurtekoarako jomugan arabera*




*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta*



Espero da **adierazleen betetze-maila % 66koa edo handiagoa izan duten jarduera guztiek**, hau da, 1.1.3 Euskadi Basque Country Eguna (Euskadi Basque Country Eguneko ospakizunen kopurua), 1.1.6 Euskal Expertisea atzerrian proiektatzea (euskal partaidetzarekin expertisea zabaltzen duten nazioarteko ekitaldi kopurua), 1.3.5. Euskal Kanpo Harremanak gizarteratzea (Kanpo Harremanak euskal gizarteari komunikatzeko jardueren kopurua), 2.1.3. Euskadik i Brexiten aurrean dituen interesak (Brexitearen Jarraipen Batzordearen bilera-kopurua eta horri buruz eztabaidaguneetan emandako hitzaldi kopurua), 3.1.2. Nazioarteko liderrekiko harremanak (antolatutako Learning Touren kopurua), 3.3.2. XXI. mendeko euskal komunitatea (Gaztemundu programan parte-hartzen dutenen kopurua), eta 3.3.4. Atzerriko euskal komunitatearentzako arreta (Muturreko beharrea izanik laguntza jaso duten familia-unitateen kopurua) adierazleek, **arazo handirik gabe, hiru urtekoaren helburuak lortu ahal izango dituztela.**

Helburu bakoitzaren jarduna aztertuz gero, **nabarmentzekoa da 2. helburuan lortutako betetze maila (Euskadik Europan duen presentzia indartzea)**, hiru urteko ezarri ziren helburuen %75a jadanik bete dituelarik. **Lehen Helburuari dagokionez (Euskadiri eragile global baten lekua ematea)**, 2020ko jomuga guztien % 20-a bete badira ere (eta 2019rako helburuak %40ak lortu dituzte) hauetako % 27-tan ez da jarduerarik erregistratu. Azkenik, **3. Helburuari dagokionez (Munduan Euskal interesak sustatzea)**, jarduetariko askok (%43) 2020rako bere jomugak bete dituzte, eta 2019rako %67-a, eta orokorrean ondo bideratuta dago ezarritako helburuak betetzera. Aurrerago, helburu bakoitzaren behaketa zehatzagoa ikus daiteke.

10 irudia. Helburu estrategikoen barnean %100%, >66%, <66% y 0% burututako jomugak



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bildu dituen datuetatik abiatuta

**1. helburuari, Euskadi eragile global baten lekua emateari dagokionez, L.1.1 ekintza-ildoaren barruan antolatutako jarduerak bultzada handiagoa beharko dute 2020ko ekitaldian Euskadi Basque Country marka zabaltzeko.** Idazkaritzak eta Euskal Etxeek antolatutako marka-jarduerari buruzko 1.1.1 eta 1.1.2 jarduerak ezarritako helburuetatik azpitik daude. Nolanahi ere, 2019an herrialdearen marka sustatzea oso lotuta egon da atzerrian egiten diren ekitaldi eta ekintza ugaritan parte hartzearekin. Hainbat gaietan erakunde-ordezkarien eta euskal adituen aurkezpenak eta esku-hartzeak egon dira.

Ildo horren barruan, 2019ko *Euskadi Basque Country Egunaren* ospakizuna nabarmentzen da. Ekitaldi horrek, Euskadiren nazioarteko jarduerarekin lotutako, eta EBC marka eta euskal balioak munduan zehar sustatzen laguntzen duten ekosistema biltzeko aukera eman zuen. Era berean, aipatu behar da urratsak eman direla 2020tik aurrera *Euskadi Basque Country Laguna* aitorten instituzionala eman ahal izateko Euskadi Basque Country markaren kanpoko proiektzioan egindako ekarpenegatik nabarmentzen diren pertsonen.

Bestalde, nabarmentzekoa da **L.1.2 ekintza-ildoaren gauzatze-maila ona, 2030 Agenda Euskadin aplikaraztea**; izan ere, 2020rako ezarritako helburu guztiak bete dira 1.2.1 ekintzaren “Sentsibilizazioa, prestakuntza eta zabalkundea Euskadin” adierazlean eta 1.2.3 Euskadi Basque Country 2030 Agenda nazioartean sustatzea ekintzan. Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuen 2030 Agendarekin duen konpromisoa Euskadiko 2030 agendan eta arlo desberdinetako euskal eragileen artean garapen iraunkorreko helburuak gizarteratzeko lan bizian islatu da. Eusko Jaurlaritzak egindako lanak nazioarteko foroetan interesa sortu du, eta horrek atzerriko sustapenerako lan handia eragin du. Lehenkadariak Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoan parte hartzeak Euskadiren kanpoko proiektzioan eragin handia izan du, Lehendakari baten lehen parte hartzea izanik. 2019 urtean zehar, Euskadi 2030 Aliantzaren sorrera iragartzea aurreikusi da, **1.2.2 Erakunde, eragile eta sareekiko itunak** ekintzaren adierazle guztien jomugak betetz. Azkenik aipatzekoa da, lehen helburuaren barruan, **1.3 ekintza ildoak, Nazioartekotze arloan adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea** ildoak, bultzada esanguratsua beharko duela 2020 urtean ezarritako xedek osatu ahal izateko *personal teknikoaren nazioarteko mugikortasun programa* ekintzan *nazioarteko harremanen arloko ezagutza sarea* ekintzan. Beharrezkoa da ere nazioarteko think tankekin harremana indartzea eta gazteak erakartzeko komunikazioa indartzea.

Bere aldetik **2. helburua. Euskadik European duen presentzia indartzea**, esanguratsua da 2019rako helburu guztiak ia osatuta egotea. Laburbilduta, 6 jarduketetatik 5 eta 8 adierazleetatik 7 guztiz bete dira. Europar batasunak eguneroko jardueretan garratzi handiena

izan du. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak aktiboki parte hartu du *Europar Batasuneko organo eta erakundeetan Euskadiren interesak sustatzeko*, adibidez, eskumen legegileak dituzten eskualdeen talde informalarren lidergoaren bidez (RLEG), Europa integratzeko prozesuan eskumen legegileak dituzten eskualdeen rola eztabaidatzeko; edo Eskualdeetako Lantaldearen osoko bilkuretan zuzenketak aurkeztuz edo Euskadiren interesen aldeko itun desberdinen alde bozkatzuz. Era berean, *Euskadik Europar Batasunari buruz duen etorkizuneko ikuspegia nazioartean proiektatzeko lan egin da*, adierazpen ugari sinatuz eta landuz, baina batez ere lobby politiko-instituzionalaren bidez. Bestalde, *Euskadik Brexit-aren aurrean dituen interesak defendatzeko*, eta inguruko hainbat jarduera antolatu dira Euskadin. Azkenik, nabarmendu behar da *2.1.4 Europako Gaiei buruz Estatuarekiko harremanak* ekintzak arreta handiagoa beharko dutela 2020an, Europako gaietarako aldebiko batzordearen bilera beharrezkoena izanik.

Azkenik, **3. helburuari dagokionez: Munduan euskal interesak sustatzea**, gauzatze-maila desberdinak ikusten dira 3 ekintza lerroetan.

**3.1 Atzerriko euskal interes sektorialak bultzatzea ildoan**, jarduera ezberdina izan da, 2020-rako 5 ekintzetatik 3tan eta 6 adierazletatik 4tan, ezarritako jomugak beteta edo amaituta daudelarik. *3.1.4. Diplomazia publikoko ekintzak* eta *3.1.5. Kanpoko nazioartekotze-proiektuei laguntzea* ekintzak, eta, bereziki, bigarrena, 2020rako Kanpo Harremanetarako Planean ezarritako helburuetatik urrun daudenez, eta, beraz, 2020ko ekitaldian arreta berezia eman beharko zaie. Ildo honetan, funtsezkoa izan da *kanpoko gobernu, erakunde eta pertsona ospetsuekin harreman instituzionalak sustatzea*, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak antolatutako bidaien bidez. Lehendakariak nazioartera egindako bidaia ofizialek atzerriko pertsona garrantzitsuekin biltzeko aukera eman zion, New Yorkeko Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoan parte hartzeko gonbidapena zela eta; edo Francisco Aita Santuarekin eta Vatikanoko estatu-idazkariarekin, Share proposamena aurkezteko. Era berean, eta René Cassini Bakearen Nobel sariaren 50. urteurrena zela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiko Presidentearekin biltzeko aukera izan zuen, besteen artean. Aurrekoaz gain, Lehendakariak ere, atzerriko hainbat gobernuen goi-ordezkariek jaso zituen Euskadin, hala nola Fukushima eta Mie prefekturako gobernadore japoniarra eta Txinako Jiangsu eskualdeko gobernadore ordea, Asiarekiko erlazioak indartuz. Bestalde, burututako bi Learning Tour-ak nabarmendu behar dira, Quebec-eko ordezkari batzuekin eta esparru soziosanitarioko eta hezkuntzako aditu europarren beste ordezkari batzuekin.

**L3.2 ildoari dagokionez (Itun estrategikoak garatu eta finkatzea)**, esan daiteke betetze-maila hobetu daitekeela, 6 jarduketa osotatik 3, eta 7 adierazletatik 4 amaituta. Beraz, 2020an, Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak bultzada eman beharko diete *3.2.2 Lehentasunezko herrialdeekiko harremanak*, *3.2.5. Nazioarteko sareetako presentzia eta* *3.2.6. Laguntza teknikoko proiektuetarako laguntza-lerroa* ekintzei. *Nazioarteko antolakundeekiko harremanei eta lankidetzari* erreparatzen badiogu, aipatzekoa da Europako Kontseiluaren 70. urteurrena ospatzeko ekitaldia, Donostiako Kursaal. Bestalde, *lehentasunezko herrialde eta eskualdeekin ekimenak garatzeari* dagokionez, nabarmentzekoak dira Euskadiren eta Fukushimaren arteko elkar ulertzeko memorandumaren sinadura eta 2012an Jiangsurekin sinatutako elkar ulertzeko memorandumaren berritzea, Asian; Txileko Etxebizitza eta Hirigintza Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren arteko elkar aditzeko memorandumaren sinadura, Latinoamerikan; eta European, Lehendakariak eta Iparraldeko Mankomunitateko presidentek sinatutako MoU-aren sinadura Euro eskualdearen esparruan. Azkenik, euroeskualdearen esparruan ere 2019an Batzar Nagusia eta Batzorde Betearazlea berriro direla.

Amaitzeko, ikusi behar da **L.3.3 euskal gizartea diasporizatzea eta atzerriko euskal komunitatea indartzea ildoak** gauzatzeko-maila nabarmentzekoa izan duela, hirurtekoaren helburuak betetzera ondo bideratutako 4 ekizetatik 3ekin. Arreta handiena eman beharko litzaiokeen jarduera bakarra *3.1.1 Euskal Etxeen sarea finkatzea* ekintza izango litzateke eta, bereziki, *Euskal Etxeetarako plataforma elektronikoa sortzea* adierazleari. 2019ko ekitaldi nagusiak II. Euskal Diasporaren Eguna eta Kanpoko Euskal Gizataldeen Mundu Biltzarraren VII. Edizioa izan ziren. Laurteko azken ekitaldi honek, Saregintza lelopean, Euskadiko erakundeetako ordezkariak, Euskal Gizataldeen Aholku Batzordea eta 19 herrialdeetako euskal etxeen ordezkariak Bilbora bertaratzeko ahalbidetu zuen. Gaztemundu programa berrargitaratu zen. Programa horren bidez, mundu osoko Euskal Etxeetako 18 eta 35 urte bitarteko 15 gazte Euskadin izan ziren. Azkenik, *euskal diasporari buruzko ezagutza sustatzeko* ekintza nagusi bezala azpimarratzekoak dira: diasporaren kezka eta migrazio-fluxuak ezagutzeko Enara inkesta egitea, baina, batez ere, Euskadiko Artxibo Historikoaren barruan Euskal Diasporaren Artxiboa abian jartzea.

Azken batean, 2020. urtea funtsezkoa izango da Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak 2017an 2018-2020 hirurtekorako ezarritako erronkak lortzeko. **Adierazleak betetze-maila %60-ren ingurukoa** (%40ak 2020ko helburuak lortu dituztelarik jadanik) **da 2019rako ezarritako helburuak kontutan izanik**, eta **egindako lana nabarmena**. Oraindik ere, bigarren urtearen

amaierako, lana dago egiteko, ,bereziki oraindik hasi gabeko 5 adierazleri bultzada emateko. Nolanahi ere, baieztatu daiteke Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2019an gauzatutako jarduerak ondo bideratu dela 2018-2020 aldirako Kanpo Ekintzako Plan berriaren ezarritako helburuak lortzera, bide horretatik Euskadi aktore global gisa hobeto kokatzen lagunduz bere markaren proiektuaren bidez, proiektu europarraren eraikuntzan lagunduz eta, gero eta globalagoa eta konektatuagoa den mundu batean euskal interesak sustatuz eta aldi berean, lurrunkorragoa, anbiguoagoa, konplexuagoa den munduan.